

# Zer egin dezaket biktima naizela uste badut?

Zoaz informatzera, zein bide har dezakezun jakiteko. Egoera ez bada larria gizarte edo berdintasun zerbitzuetara jo dezakezu (Bilbo, 94 4204838, Gasteiz, 945 161345, Donostia, 943 481400) eta bertan zer gertatzen zaizun azaldu ezazu

Egoera larria izanez gero, honako telefono zenbakietara hots egin dezakezu:

## Erkidego osorako

Ertzaintza

**112**

Telefono bidezko arreta zerbitzua, 24 orduz  
**900840111, 016**

## Araba

Larrialdietarako zerbitzu soziala,

**945 134444**, 24 orduz

Biktima laguntzeko zerbitzua

**945 004895**

## Bizkaia

Larrialdi sozialak

**94 4701460**, 24 orduz

Biktima laguntzeko zerbitzua

900400028

## Gipuzkoa

Foru Aldundiko larrialdietarako zerbitzua

**943 224411**, 24 orduz

Biktima laguntzeko zerbitzua

**900100928**

## EMAKUMEAK GENERO INDARKERIAREN AURKA

# Ez ditzatela jazarri zure eskubideak!



[www.sosarrazakeria.org](http://www.sosarrazakeria.org)



ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA  
Gizarte Gaietako Sailburuordetza  
Immigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Viceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Inmigración

# EMAKUMEAK GENERO INDARKERIAREN AURKA

## Ez ditzatela jazarri zure eskubideak!

### Zer da generoan oinarri duen emakumeen aurkako indarkeria?

Sufrimendu fisiko, psikiko eta sexuala eragiten dituen edozein jarduera bortitza. Alor publikoan edo pribatuan eman daiteke. Halako jarrerak legez kanpokoak dira.

### Zer motatako bortizkeriaz ari gara?

**Fisikoa:** bultzadak, kolpeak edo bestelako erasoak.

**Sexuala:** borondatez kontrako harreman sexualak: ukituak, jazarpena (etxean, lanean edo eskolan), bortxaketa eta emakumea prostituzioan aritzera behartzea, besteak beste.

**Psikikoa:** mehatxuak, irainak, umiliazioak, emakumearen aurkako mespretxuak, eta abar.

**Ekonomikoa eta soziala:** dirua kontrolatzea, emakumeari lan egitea edo ikastea debekatzea, emakumea isolatzea, besteak beste.

### Nola jakin dezaket bortizkeria jasaten ari ote naizen?

- Bikotekideak ez ditu zure iritzia kontuan hartzen edo gutxietsi egiten zaitu
- Oso jeloskorra da, ez dizu ateratzen uzten edo zure sakelekoa kontrolatzen dizu
- Ez dizu dirurik ematen edo berak kontrolatzen du
- Jendaurrean gutxiesten zaitu, xantaia egiten dizu edo ez bazeunde bezala jokutzen du.
- Zure izaera, pentsakera edo janzkera gaitzesten ditu
- Sexu harremanak inposatzen dizkizu
- Iraindu, kolpatu, bultzatu edo mehatxatzen zaitu

Batzuetan, familiak edo lagunek normalizat hartzen dituzte halako portaerak, eta onartu egin behar direla diote, horrela izan delako beti. Nolanahi ere, jarduera hauek ezin dira onartu sufriarazten gaituztelako.

### Zein eskubide ditut biktima eta etorkina banaiz?

- Laguntza jasotzekoa, zu eta zure seme-alabak
- Gertaerak salatu eta babes agindua eskatzekoa
- Zure **erresidentzia baimena** eskatzekoa, nahiz eta egoera irregularrean egon - Informatu, aholkatu eta lagundua izatekoa
- Non egon ematearena zure etxetik alde egin eta bizitzeko tokirik ez bazenu
- Abokatu eta interpreteek doan artatu zaitzaten dirurik ez baduzu
- Erroldatuta sei hilabete badaramatzazu diru-laguntzak jasotzeko aukera
- Terapia psikologikoetara, zuretzat eta zure seme-alabentzat